

# PAUL ETA SONGINKERIA-LIBURUA

San Juan bezperako gau magikoarekin batera iritsi zen uda, eta Paulek oporrak hartu zituen eskolan. Susmatu ere, berehala susmatu zuen opor haiek bereziak izango zirela, Bilboko zurrumbilotik ihes eginda, sorginen herrira joango baitziren aita, ama eta hirurak.

- Zugarramurdira goazela? Biba! Biba!- oihu egin zuen Paulek. Doña Casilda parkeko txoriak baino kontentuago jarri zen amaren ahotik berri pozgarria entzutean. Izan ere, gustuko zuen sorginen herria, ezberdina baitzen, xarma bereziko. Han aititari “aitatxi” esaten zion eta “amatxi” amamari. “Karrika” esaten zion kaleari. Esaten ez, “erraten”.

Urte purrust bat iraganak ziren Paul Zugarramurdira egona zen azken oporretatik, hiruzpalau agian, edo lauzpabost, akaso. Hala ere, artean ondotoxoa zuen akorduan Patxibeltzenea etxe handia, familikoena. Baina gauza guztietan, gogo-gogoan zuen bereziki ilunabarrean amatxi Graxianak kontatzen zizkion istorio-misterioak. Batzuetan, irri-karkaraka eta, bestetan, beldurrak airean uzten zuten Zugarramurdiko sorginen istorioak ziren, behin ere hotzepel uzten ez zuten horietakoak.

Hori guztia gogoan, ba, Paulek bere egunerokoaren hasieran I Bilbo idatzita zuen orrialdetik urruneko beste orrialde batean honako hauze idatzi zuen:

I Zugarramurdi

Eta, gauzak zer diren gero, Zugarramurdira hasi zitzaion Pauli istorio miresgarri hau, etxeko komuneko ispiluaren aurrean, hain zuzen ere. Amatxi Graxianari esker izan ere. Ah!, eta Pauli berari hamaikatxo buruhauste ematen zizkion sudur-puntako garatxoari esker.

Behinola, kexka aurpegiar ari zen Paul, ditxosozko garatxo hura pomadaz igurtzi eta igurtzi. Amatxi hurbildu eta xalo-xalo hitz egin zion:

- Lasai, Paultxo, neuk sendatuko dizut garatxoa.
- Zeuk sendatu? “Perixbel 500” botika demontre honek kendu ez eta zeuk bai? Nola, baina?
- Sorginkeria-liburuan begiratuta-azaldu zuen Graxianak erabakior.
- Zer liburu mota da hori, ba, amatxi?
- Belaunaldiz belaunaldi iraganda nireganaino iritsi den liburu berezia. Sorginkeria leporatuta sutan hilarazi zuten Graxiana de Bengoechea nire arbaso errugabearen liburu.
- Eta zer du, ba, liburu horrek hain berezia izateko?
- Ilunpeko munduko jakinduria handia...gauza miragarriak, magia kontuak, ukenduak, sendabelarrak...mendetan eta mendetan gizakien artean bizirik iraun duten hamaikatxo sineskeri...

Eta, hori esanda, arrastiko azken argi-xirrintak profilatuz, Patxibeletzeneako mandiora igo ziren amatxi Graxiana eta Paul, Mixmix katu txatxua itzulinguruka zebilkiela. Leku iluntsua zen hura, handi-handia, traste xaharrez eta misterioz jositakoa. Armairu pitzatu bateko ate kirrinkaria ireki zuen aurrena. Beheko apalean belar mota ezberdinez betetako zakutoak zeuden hurrenkeran eratuta, izen eta guzti. Baina goiko apalera luzatu zuen besoa amatxi Graxianak, oin-puntetan jarrita. Zakuto handixeago bat eskuratu zuen barrenetik, eta eskuartearen liburukote xaharkio bat hartu zuen andre tenteak. Ondoren, mahaitxo loka baten gainean liburua utzi, eri-puntak listuaz busti, eta han ibili zen orri maskaletan atzera-aurrera, goiburuak marmarka esaten zituen bitartean:

- Sorginen erranak...ez; konjuruak...ez; luzaroan bizitzeko trikimailuak...ez; sendabideak eta erremedioak...bai...hemen nonbait...katarro...buruko mina...erreuma...zotina...garatxoak! Hementxe da!

Miretsita gelditu zen Paul, begiak plater biren antzera, eskuz idatzitako liburutzar hura zain zen bestelakoa, izan ere...

- Entzun arretaz, Paul - eten zuen amatxi Graxianak halako batean, eta ozenki irakurri zuen liburua begietara areago hurbilduta:
- Sagar bat lau zatitan banatu eta haiekin igurtzi garatxoak. Ondoren, bidegurutze batean jarri sagar zatiok. Noizbait bertatik ume bat pasatu eta sagarra jaten badu, ume hori geratuko da garatxoarekin.

Eta saskitik sagar papargorri bat harturik, halaxe egin zuten segtuan, liburuak agindu bezalatsu.

Aitak mesfidantzaz begiratu zion Pauli erremedioarena kontatu zionean. Ondoren, asperen egin zuen. Gero kokospeko ile-xerloari tiraka bete-betean bota zuen:

- En fin!, amatxiren memelokeriak...

Baina harri eta zur gelditu zen, astebetexo iraganda, Paulen sudur-puntako garatxoa guztiz desagertu zela ikusita. Eta are harrituago Alzatenerako Xabiartxo mutiko morroskoa, sudur-puntan garatxo bat zeukala, etxera joan zitzairenean:

- Futboleak jolastu nahi duzu, Paultxo?

Plazarantz abiatu ziren mutiko biak, baloia tarrast-tarrast. Eta kaleketan itzulinguruka, halatsu bota zion Xabiartxok Pauli, zapuztu samarturik:

- Hiri garatxoa joan eta niri etorri! Hori duk hori sorginkeria! Ederra diat sudurra!

Paulek lotsa apur bat ere sentitu zuen, eta garatxoa kentzeko sekretua jakinarazi zion berandu gabe, sorginkeria isilean gordetzekotan. Xabiartxo tripazakuak, berri, braust!, segituan aitortu zuen plausta-plausta jan zituela begigurutzear aurkitutako lau sagar zatiak:

- Hain zeuden goxoak...

Kontuak kontu, egun hartatik aurrera sorginkeria-liburua noizbait ikusmiratzeko gogoak piztu zitzaizkion Pauli. Eskatu ere, arren eta arren eskatzen zion amatxari, eta amari, aldarte oneko zebilenean; baina biek ala biek ere zaputz egiten zioten, han idatzirikoak ez zirela jolasean ibiltzeko modukoak esanez eta, beraz, mandiora ez igotzeko. Baina gaztigu hark areago handitzen zuen Paulen jakin-mina. Atralaka handia izaten zen beti ditzosozko sorginkeria-liburuaren kontura.

Guztiarekin ere, mutiko ekinak ez zuen egundo ere etsi. Behin batean, etxeko guztiak Elizondoko azokan zeudela, isil-gordeka igo zen mandiora. Sorginkeria-liburua eskuratu zuen armairuaren gainetik, ederki kostata eskuratu ere, aulki baten gainean jarrita lortu baitzuen gailur egitea. Lasaitu ederra hartu zuen Paulek antzinako orri pila maskal hura eskuartean zuela. Larruzko azaletan galanki grabaturiko marrazkiak eman zioten atentzioa lehenengo begiratuan: sugeak, igelak, animalia mitologikoak...Barrengo orrialdeak gainbegiratzen hasita, gauza ugari zeuden: errezoak, zori ona erakartzeko pasarte miraritsuak, kafearen kondarretan etorkizuna irakurtzeko jarraibideak...Segurutik, beste inongo liburutan agertuko ez zen jakituria zuen eskueran. Baina Paulek ezin izan zion barreari eutsi erratz baten gainean sorginen gisara hegan egin nahi izatera zer egin behar zuen irakurri zuenean. Bere ustez, amatxik itsu-itsuan sinesten zuen hark guztiak txistetik zuen gehiago seriotik baino.

Jakin-minari ere areago eutsi ezinik, liburuan aipatzen ziren belarrak aukeratu zituen armairuko beheko apaleko zakutoetatik: belaikia, era-belarra, asma-belarra, astaperretxila, labore-irin nabarra... Sorginkeria-liburuak azaldutako eran hasi eta buka egin zuen hegan egiteko nahasketa miraritsua egosita, hura guztia jolas soila besterik ez zelakoan. Antoisin batean gertatu zuen mendafin-koloreko edabe magiko hari tragoxka luzea egin zion, hurrup eta klik, hitz magikoak esandakoan:

Zirristi-mirristi  
gerrena plat  
olio zopa  
bikirri salda  
urruo edan edo klik  
ikimilikiliklik

Otoitz bat ere egin zuen marmarrean, eta zorua hartz-koskorrekin hamar aldiz jo zuen. Ondoren, tortolos-hotsak kliski-klaska atera zizkien atzamarrei, horixe agintzen baitzuen liburuak.

Barrenak alderik alde irauli zizkion galda biziko sua bilakatu zen Paulen gorputza. Bazkaritan jandako guztia zintzurrera joan zitzaion ausarkeria, baina ez zegoen jada atzera egiterik. Eta han joan zen Paul, mandioko leihotik, erratz xahar baten gaineran hegan, fffffiixt, sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik...

Zugarramurdiko plaza gainetik pasatzen begira-begira gelditu zitzaion futbol-partidan atezain ari zen Xabierto, eta beste mutiko guztiei ohartarazi zien:

- Aizueeeee, begira ezazue zerura, Paul da, hegan.

- Egia, Paul da, erratz zahar eta zikin baten gainean zerua alderik-alde gurutzatzen.
- Uste dut egokiena, bere amatxi Graxianari esatea izango dela, berak jakingo du nola konpondu arazoa!!!- esan zuen handik hurbil zegoen neskato altu eta irribarretsu batek, herriko umeez esaten zuten sarritan salatu zituela gainerako bihurrikeriak.
- Ezin duzu hori egin!- oiho egin zuen Xabiartxok- Badakizu amatxi Graxianari ez zaiola batere atsegina agertuko bere biloba erratz gainean firin- faran ibili izana, Lur.
- Horregatik egingo dut bada, Paul txikia larri eta beldurtuta ikusteko- eta horrekin zuten gatazka, Lur-ek bizkarra eman zien eta bere etxera abiatu zen, bazkaltzeko asmoz.

Bitartean Paul erratz gainean bueltaka zebilen, gelditu ezinean. Erratza nahi zuen tokira zihoan, jada herria ez zegoen begi-bistan eta Paulen aurpegia udaberriko belarraren antzera jarri zen, ezin berdeago. Paisaia aparta zegoen mutikoaren oinen azpian, mendi altuak, pinu eta haritz mordoa eta leze pare bat baita ere. Erratza, ez zen batere polita baina 200 zaldiko auto bat baino bizkorrago zebilen, pixkanaka- pixkanaka Paul disfrutatzen hasi zen traste xaharreakin gora eta behera mila eta bat buelta emanez, haizearen kontra joanez, ahoa zabaldu eta puxika baten antzera jarriz. Hura bai dibertigarria, bestelakoa! Une batez Paul zorabiatuta sentitu zen baina berehala joan zitzaion. Erratza koba baten parean gelditu zen, oso leize sakona eta garbia zen, gailu arraroz betea.

- Kaixo... - esan zuen mutilak, ia- ia xuxurlatuz.

Ez zen erantzunik egon eta buelta ematera zihoan unean ahots ezti eta goxo bat entzun zuen bere atzean.

- Kaixo Paul- Anbotoko Mari zen- zu izan zara aukeratua Akerbeltz ordezkatzeko, Irati oihaneko basajauna gaixorik ipini da eta laguntzeko asmoz joan da gure aker xaharra Iratira. Jakingo duzunez San Juan gaua iristear dago eta festa handi bat ospatzen dute Euskal Herriko sorginek Zugarramurdin. Oso festa berezia denez urtero-urtero edariak, sutarako enborrak eta hainbat gauza gehiago bildu eta egin behar dira aste pare bat arinago. Gai izango zara hori guztia zuzentzeko eta sorginkeria pare bat ikasteko?
- Uste dut baietz- esan zuen Paul-ek kikilduta.
- Oso bilera garrantzitsu bat daukat oraintxe bertan beraz ezin dizkizut xehetasun guztiak kontatu, beraz irakurri erratzean itsatsita utzi dizudan oharra. Agur, zorte on!
- Agur- esan zuen Paul- ek oraindik entzuten ari zena sinetsi gabe.
- Itxoin.-esan zuen Mari, harrizko ate handi bat zabalduz batera, barruan urrezko gailu eta gauzak zeuden.- Hemendik nahi duzuna hartu dezakezu, gauza bakar bat soilik.
- Ez da beharrezkoa Mari- esan zuen Paul-ek.
- Baina hain fabore handia egingo diguzu...hartu ezazu zerbait, eskerrak emateko besterik ez da izango.
- Ongi da...

Minutu pare bat begira ibili ondoren urrezko txistu bat aukeratu zuen mutilak eta andre gazteari eskerrak eman ondoren, Marik emandako gutun azala zabaldu eta poliki-poliki irakurtzen hasi zen, horrela zioen:

“Paul maitea:

Jakingo duzunez Akerbeltz ezin izango da festa handia zuzentzen ibili, horregatik ordezko bat aukeratzera behartuta gaudela uste dugu. Ordezkoa erratz zaharra martxan lehenengo ipintzen zuena izango zen eta horra hor, zu izan zara zorionekoa! (ez dakit ba, ni, Paul txikia sorgin mordo bat zuzentzen... ez dut uste ondo aterako denik). Festa guztia antolatu beharko duzu baita parte hartuko duten emakume eta aztiak ere! Edabeak egiten ikasi beharko duzu, sorginkeria batzuk ere (ez dira guztiz zailak egiteko). Akerbeltz festaren egunean etorriko da eta pixka bat lagunduko zaitu, kontuz ibili berarekin, haserretzen denean izugarritzko gatazkak sortzen ditu. Arau nagusia hau da: ezin izango zara herrira jaitsi festa amaitu arte eta ezingo duzu lagunik ekarri festara, beraiek aurkitzen bazaituzten ordea Akerbeltz-en baimenarekin gelditu ahalko dira, bestela igel bihurtuko ditu eta egunsenti-rarte ez dute beraien itsura berreskuratuko. Zorte on!”

- Abentura izugarriak bizi izan ditut baina horrelako zerbait... Inoiz ez!-pentsatu zuen Paul-ek.

Erratz gainean jarri eta ziztu bizian abiatu zen Zugarramurdiko kobetara, gose ikaragarria zuen eta sorginek zer emango zioten pentsatzen ibili zen bidai osoan zehar. Hamabost minutu besterik ez zituzten behar izan kobetara heltzeko, behin han, Paul harri handi baten ondoan eseri zen, bere ustez oso nekagarria zen erratz fin baten gainean ibiltzea, ez jauzteko esfortzuak eginez. Iratxo txiki eta hitzontzi batek mutikoari esan zion:

- Gorringo Galtzontzi naiz- oihu egin zuen bere esku txikia luzatu bitartean, besteak ere eskua luzatu zuen, gizon batek bezala. Oso atsegina iruditu zitzaion Iratxoa, momentu jakin baterarte, ordea. Eskuan atximurka egin zion! gero hitz eta pitz jarraitu zuen:
- Akerbeltz-en laguntzaile bezala eman ditut pare bat urte, orain, bera hemen ez dagoela jakinda zuri lagundu beharko zaitut. Gose zara? Seguru baietz, sorginei esango diet zuretzat zerbait goxoa presta dezatela.

Ondoren, harri handiaren ondoan zegoen sorgin batengana hurbildu zen eta zerbait esan zion belarrira, sorginak barre egin zuen eta besteei deitu zien zerbait esateko. Bitartean Paul lo ziplo geratu zen, nekearen eraginez. Esnatzerakoan, sorgin mordoak ikusi zituen bere inguruan, batek koilara handi bat zuen, burbuilak ateratzen zitzaizkion salda batez betea.

- Ez! Ez naiz gose! Ez!- esan zuen mutilak, baina ordurako berandu zen, koilara ahoan zuen jada.

Paul txikiak konortea galdu zuen.

Bitartean herrian...

Lur amatxi Graxianaren etxera zioan, kale estu-estu batetik igaro beharra zuen. Xabiartxo eta beste mutilak kale estuaren bi ertzetan zeuden ezkutatuta, palet handi batzuekin. Neskatoa kalean barrena sartzerakoan...zast! paletak hartu eta kalearen bi ertzak guztiz estali zituzten.

- Hemendik ateratzea ez da zaila, laster egingo duzu salto palet-aren gainetik , gero Graxianari kontatu ahalko diozu Paul- ek hegan egin zuela erratzaren gainean baina hori egin ezkeru, ondorioak egongo dira zuretzat.- esan zuen Xabiartxok, eta gero Lur-en txakur txikia erakutsi zuen.
- Ez! Bolatxo ez! ez dut ezer esango baina ez egin minik nire txakur txikiari! Mesedez.

Xabiartxok bi palet-ak kendu zituen eta neskari bere txakurra itzuli zion, honek esan zien ez zuela Graxianarena joko Paul salatzerara beraiek Bolatxo-ri minik egingo ez ziotela zin egiten bazuten. Bakoitza bere etxera joan zen, mutilak oso pozik zeuden plana bikain atera zelako, Lur ordea...Bolatxori zerbait egingo zioten beldurrez zegoen.

Sorgin zaharrek Paul-i gaiztakeriak egiten zizkioten egurra biltzen zeuden bitartean eta Goringok belarrira gauzak susurlatzen zizkien. Paul-ek hasieran pentsatu zuen errieta egiten zegoela baina zer esaten zuen entzun eta gero guztiz aldatu zuen iritziz, "makila finak bildu eta morrosko horren aurrean utzi behar dituzue, entzun?" Mutikoa nazkatuta zegoen egun guztia atso itsusi eta lotsagabe horien atzetik ibiltzearena. Gau polit batean, izarrei begira zegoelarik eskua poltsikoan sartu zuen bere eskuargia han zegoen begiratzeko. Ez zuen bilatzen ari zena atera, alegia, baizik eta Marik orain dela egun batzuk oparitutako txistua. Hurrengo egunean frogatuko zuen, laister lokartu zen Paul txikia, urrezko txistuarekin ametsetan.

Goiz liluragarria zen hura, txoriak txio-txio zebiltzan, mutikoa inoiz ez bezala zegoen, laster San Juan gaua izango zen!

Mutilak oraindik egur mordoak bildu behar zuen eta lehenbailehen ekin zion lanari. Marik emandako txistua jo bezain laster ahots fin batek esan zuen: "eskatu nahi duzuna, eskatu nahi duzuna..." Paul-ek baxu-baxu ahoskatu zuen inork entzun ez zedin.

Sorginak berehala hasi ziren enbor zatiak zaku handietan biltzen. Bi astetan egin ez zutena ordu batzuen buruan eginda zegoen!

Guztia zegoen prest festa handirako, erratz mordoak zeuden haitzuloko horma baten kontra eta gainera enborrak su handietarako prest zeuden. Edari eta janaria harriz egindako mahai batean zegoen. Festa hastear zegoen unean bertan Akerbeltz heldu zen.

- Kaixo, kaixo, kaixo- esan zuen aker jakintsuak- Nor dugu hemen? A, bai! Festen erregea!

Ni, nola ez, tomateak bezain gorri jarri nintzen. Festa hasi baino lehen Akerbeltz-ek esan zuen:

- Kaixo guztioi, aurten pasadan urtean baino sorgin gehiago garela iruditzen zait. Beno, jakingo duzuenez urte guztietan lez festa izugarria izango da, baina ez naiz ni izan antolatzailea baizik eta Paul- hori esan eta gero bere buru handiarekin hurbiltzeko keinu bat egin zion. - Bai, mutiko hau izan da zuen buruzagia bi astez zehar. Suposatzen dut Marik merezia emango zizula, ezta?- mutilak gora eta bera mugitu zuen burua baietz esanez, gero Goringo Akerbeltz-en belarriaren parean jarri eta zerbait susurlatu zion- Eta besterik esan gabe... Has dadila festa!
- Baiiiiiiii- oi hu egin zuten sorgin guztiek.

Festa izugarria izan zen, suaren inguruan dantzan ibili ziren luzaroan eta gero edabeak egiten igaro zuten gau guztia. Paul-ek inoiz ikusi zuen San Juan su-rik handiena izan zen. Erabaki zuen joateko ordua zela eta akerrak esan zion herriko sarrerararte joaten lagunduko ziola. Herrira iristerakoan Paul-ek esan zion:

- Zera, oso ondo igaro ditut bi aste hauek. Baina, arazo larri bat dut, nire gurasoek non egon naizen galdetuko didate eta beno... pentsatu dut ea guztia ahazteko sorginkeriararen bat erakutsi ahal didazun...
- Noski baietz!

Paul-ri sorginkeria idatzia zuen paper bat eman zion.

- Proba egingo dugu, bai?
- Ongi.

Eta Akerbeltz-ek esan zuen:

Kiliki, miliki  
Miliki, kiliki  
Itxi begiak  
zenbatu ardiak  
pentsamendu berriak,  
atera nagiak  
kiliki, miliki  
miliki, kiliki

Akerbeltz ilunpean desagertu zen eta Paul-ek guztia ahaztu zuen. Etxerantz bidean zegoela praktako eskuineko sakelari paper bat aurkitu zuen. Eskolara bueltatzen zenean ikaskideen aurrean errezitatze olerki bat zela pentsatuz, ozen-ozen errepikatu zuen sorginkeria.

Hurrengo goizean inork ez zuen galdetu non ibili zen Paul txikia bi aste horietan zehar, sorginkeriararen eraginez guztiok ahaztua zuten jada. Esnatzerakoan Paul-ek bere praktako poltsikoan begiratu zuen bere arkatx txikia aurkitzeko asmoz baina nahi zuenarekin topo egin beharrean Marik emandako txistua aurkitu zuen. Galdera bat bere burua alderik alde zeharkatzen ibili zen luzaroan.

**Nondik atera da hau?**